

Basabizitza gizakiak hazitako abereen gaixotasunetatik babestu beharraz

[Science aldizkariaren editorialak etxe-abereen gaitzek basabereetan eragin dezaketen hondamendiari erreparatu dio.](#) Izan ere, pasa berri den udan, Europa, Afrika eta Ipar Amerikako itsas hegaztien inoizko heriotza-tasarik handiena pairatu dute, hegaztien gripearen birusak beren ugalketa-koloniak suntsitzearen ondorioz.

Zientzialariek gogorazi dute haztegi industrialetan hazten diren abere-populazio erraldoiak direla arazoaren iturria, hor sortzen baitira patogenotasun handiko birus berriak. Urtero, 36.000 milioi hegazti, 953 milioi txerri eta 1.600 milioi behi hazten dira. Abere-populazio erraldoi horiek merkataritzaren bidez konektatuta daude, eta gaitz infekziosoen mundu mailako gordailu baten moduan jokatzeko dute.



ARG.: Naim Alel, Wikipedia/CC BY-SA 3.0.

Ikertzaileek adierazi dute estatuek hartu behar dutela beren gain basabizitza gaixotasun antropogenikoetatik babesteko ardura, eta ekintza zehatzak eskatu dituzte: haztegi industrialen tamaina txikitu eta animalien dentsitatea murriztea, haztegien arteko animalia-garraioa ahalik eta gehien mugatzea, eta abereek ahalik eta harreman gutxienez izatea erlaziozko espezie basatiekin. ●

Anputazio baten frogarik zaharrena aurkitu dute duela 31.000 urteko eskeleto batean

Sangkuliran-Mangkalihat penintsulan, Borneoko alde indonesiarrean, duela 31.000 urteko eskeleto bat aurkitu dute, ezker hanka anputatuta duela. Anputazioa garbia da, kirurgia bidez egindakoa; horrenbestez, halako operazio baten ebidentziarik zaharrena bihurtu da.

Ondorioztatu dute eskeletoa 19-20 urteko pertsona batena dela. Moztutako tibia eta peronearen neurriak eskuineko hankakoekin alderatuta, berriz, uste dute haurra zelarik operatu zutela, hil baino 6-9 urte lehenago gutxienez.



Ezkerreko tibiak (ezkerreko lehen bi irudiak) anputazio baten aztarnak ditu. ARG.: T. R. Maloney et al./Nature.

Aurkikuntzak atzera bota du medikuntzaren eboluzioari buruz aurrez zegoen ikuspegia. Izan ere, lehen uste zen duela 10.000 urte inguru sortu zirela operazio medikoak, Neolitoko iraultzan. Orain arteko aztarnarik zaharrena Frantzia aurkitutako nekazari batena zen: duela 7.000 urte, besaurrea moztu zioten.

Ikertzaileek gogorazi dute mendebaldeko gizartean operazio kirurgikoak ez zirela arrakastatsuak izaten duela 100 urtera arte. Horrenbestez, benetan da esanguratsua duela 31.000 urte halako kirurgia bat egiteko gai izatea, eta lortzea pazienteen onik ateratzea eta beste hainbat urtez bizitzea. Horrekin batera, ondorioztatu dute, halabeharrez, komunitate sendo batek zaindu zuela. ●